


The background features an abstract design with three concentric blue circles of varying sizes. Two thin blue lines intersect at a point, forming a V-shape that points towards the center of the page. The circles are positioned in the upper right and lower right areas, while the lines extend from the top left towards the center.

BILBOKO EUSKALDUNEN HIZKUNTZA OHITURAK AZTERTZEN

Maialen Zuazo Aurrekoetxea

Tutorea: Iñaki Martinez de Luna



Eskerrik asko inkestak erantzun dituzuen guztioi eta eztabaida taldean parte hartu duzuenoi.

Eta, eskerrik asko Iñaki, zure prestutasun eta laguntzagatik.

Bilbon euskaraz bizitzea posible dela uste dugun guztiontzat.

AURKIBIDEA

SARRERA	4.orrialdean
MARKO TEORIKOA	5.orrialdean
METODOLOGIA	18.orrialdean
TESTUINGURUA	20.orrialdean
EMAITZAK	31.orrialdean
ONDORIOAK ETA BALORAZIOA	47.orrialdean
BIBLIOGRAFIA	51.orrialdean
ERANSKINA: INKESTA	52.orrialdean

SARRERA

Jakina da Bilbon euskararen egoera ez dela erreza. Ez da ohikoa izaten Bilboko kaleetan euskara entzutea, koadrila edo famili gehienek normalean erdaraz hitz egiten dute haien artean, eta bertako komertzio edo lantoki ezberdinetan euskaraz artatua izatea ere ez da askotan gertatzen.

Joera orokor horren atzean ordea beste errealitate batzuk ere ezkutatzen dira; baina kuantitatiboki askoz txikiagoak izanik errealitate hauek ez dute oihartzun handirik izaten. Bilbon ere badagoela egunerokoan euskaraz egiten duten herritar asko, alegia. Nire senide eta lagunartean horrela gertatzen da hein handi batean.

Joera orokorra ez delako eta bere garrantzia duelako jorratu nahi dut sakontze egitasmoa Bilbon euskaraz bizi diren herritarren inguruan; portaera horri duen balorea emateko, alegia. Herritar horien hizkuntzaren erabileran oinarritu nahi dut lana.

HELBURUA eta HIPOTESIA

Ikerketa honen helburua, beraz, egunerokoa euskaraz egiten duten pertsonen ezezagunekiko hizkuntza erabilera aztertzea da.

Nire hipotesia da hurbileko jendearekin euskaraz aritzen direnak ere ezezagunekin lehen hitza erdaraz egiteko joera dutela. Joera horretan aurreiritziek asko eragiten digutela uste dut, eta adina eta sexua gure hizkuntza ohituretan zer esan handia duten aldagaiak direla (Bilbon jende gutxik dakiela euskaraz, jende dotoreak ez duela euskaraz egiten, helduek ez dakitela...). Eta, batzuetan, ezezagunak euskaraz erantzuten digula (edo agurtzerakoan euskara bazekiela konturatzen garela) eta horrek lotsa eta amorrua sentiarazten digula norbere buruarekin.



MARKO TEORIKOA

Ikerketa honen marko teorikoan hizkuntzaren erabilera izango dugu ardatz. Kontzeptu honen eta berarekin lotura duten beste kontzeptu batzuen erreferentziak jasoko ditugu beraz atal honetan. Denak jasotzea ezinezkoa dela ohartuta, eta gehiegi jaso nahiak ez diola ikerketa-gaiari mesede egiten kontuan hartuta.

Ikasketaren teoria: motibazioa, ezagutza eta erabilera

Lan hau Bilboko herritar batzuen euskararen erabileran oinarritua dagoen heinean, ezinbestekoa da, beste ezer baino lehen, José María Sánchez Carrión, "Txepetx" en, lanera jotzea.

Sánchez Carriónen helburu nagusia etorkizun linguistiko orekatua irudikatzen zuen teoria garatzea izan da. Bere lanen ildo nagusiak ondorengoak izan dira: hizkuntzen bizitzaren aldarrikapena, hizkuntza gutxituekiko ardurak, hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatua, ordezkapen mekanismoen azterketa...


80. hamarkadan aritu zen Euskal Herrian lanean batez ere, eta bere lan ezagunenaren artean *Un futuro para nuestro pasado* dago (Sánchez Carrión, 1987). Txepetx lanak Euskal Herrian eragin handia izan du.

Hizkuntza baten ikaste prozesuan hiru faktorek osatzen dute bere esanetan: **motibazioak, ezagutzak eta erabilerak**. Hirurak elkarrengandik bereiziak, eta aldi berean elkarren osagarri dira. Txepetxek ontzi komunikatuak balira bezala irudikatzen ditu.


Nahikotasun-mailatik gorago baldin badaude, hiru ontziek elkar komunikatzen dute. Ontziren bat ez bada nahikotasun mailara iristen ordea, konexioa apurtu egiten da. Hiru faktoreak, beraz, ezinbestekoak dira ikaskuntza prozesuan.

Hiru osagai hauek berezkoak edo kulturazkoak izan daitezke, izatezkoak edo ikasiak, alegia; eta horren arabera bi ibilbide mota desberdintzen ditu autoreak:

-A ibilbidea: Primarioa edo naturala. Haurtzaroan gertatzen dena. Hizkuntzarekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira. Ibilbide hau berezko erabilerarekin hasten da, eta astiro-astiro erabilera natural horrek ezagutza ekarriko dio, eta gainontzekoekin komunikatzen bere beharrak aseko dituenek, berezko motibazioa indartuko du.



-B ibilbidea: Sekundarioa edo Kulturala. Heldu batek hizkuntza bat ikasten duenean ematen den prozesua da; kasu honetan motibazioa, ezagutza eta erabilera indutituak dira. Ibilbide honen hasieran motibazioa dago (motibazio ezberdinek bultzatu dezakete pertsona bat hizkuntza bat ikastera), hizkuntza ikasten hasi eta ezagutza handitu ahala, erabiltzeko aukerak sortuko dira, eta honek era berean motibazioan eragingo du berriz. Zirkuituak etengabe funtzionatzen jarraitzen du horrela.



Pertsona gehienek hizkuntzaren bi ikasketa prozesua betetzen dituzte egoera normalizatuetan: primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa hezkuntza sistemaren bitartez. Hiztun osoak bihurtzen dira horrela, hizkuntzaren pertzepzio bikoitza dutelako (berezkoa eta kulturala). AB ikurrarekin adierazten dira hiztun oso horiek; prozesua alderantzizkoa izan denean ordea BA ikurrarekin adierazten dira (heldu batek hizkuntza bat ikasten duenean lehendabizi B ibilbidea egiten baitu)

Ikerketa lan honetan parte hartu duten herritar gehienak txikitatik euskara jasotakoak dira, baina badira alderantzizko ibilbidea egin eta helduagotan euskara ikasitakoak ere. Inkestako galderak eta elkarrizketa saioa erabiliko ditugu haien jardunean Txepetxen teoriaren elkar eragina betetzen den edo ez ikusteko.

Esparru edo funtzioen teoria

Pertsonen hizkuntza portaera aldakorak aztertzerako orduan, ikerlan honetan kasu, Sánchez Carriónen esparru edo funtzioen teoria ulertzea ezinbestekoa da: espazio edo esparru hauek ez dira fisikoak, buruzkoak baizik, eta hizkuntza batek betetzen dituen eginkizunekin lotuta daude. Une edo toki jakin batean hiru esparru mota desberdintzen ditu: bertako hizkuntzarekin betetzen direnak, kanpoko hizkuntzarekin betetzen direnak, eta bi hizkuntzekin betetzen direnak. Bata bestearen esparrua


betetzen saiatzen denean **hizkuntzen arteko lehiaz** ari gara. Ikerketa honetan, Bilboko herritar euskaldun batzuek euskarari eta erdarari ematen dizkioten funtzioak aztertu ditugu; noiz eta norekin erabiltzen duten euskara, alegia.

Hauek dira Txepetxek 1987.urtean desberdindu zituen hizkuntza baten oinarritzko funtzioak:


- Norberaren identitatea
- Familia hizkuntza
- Laneko hizkuntza
- Herriko hizkuntza
- Nazio hizkuntza
- Kultura hizkuntza
- Nazioarteko hizkuntza

Hizkuntza-komunitatea

Kontzeptu honi garrantzia handia ematen dio Txepetxek, hiztuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen unitate bezala



Hizkuntza-komunitate egitura. Sánchez Carrión, 1987,203



Hizkuntza-komunitatearen egitura zirkulu zentrokideetan adierazten du, eta erdian kokatzen ditu hiztun osoak, AB lehenengo eta BA ondoren; gero A taldea (jatorrizko hiztun primarioak) eta kanpoalderago B taldea (hizkuntza ikasten ari direnak). Egituratik kanpo daude 0 taldekoak, hizkuntza horren hiztunak ez direnak.

Komunitate horren **gune sinbolikoa** hizkuntzaren garapen osoa burutu duten pertsonak osatzen dute, AB eta BA taldeek alegia. Hizkuntzaren bihotza dira, eta hizkuntza batek biziraungo badu gune sinboliko handi eta indartsu bati esker izango da.


Un futuro para nuestro pasado lanean **ordezkapenaren eta normalizazioaren** urrats nagusiak laburbiltzen dira, eta kontzeptu hauen azalpena ere interesgarria iruditzen zait, Bilbon (eta Euskal Herrian oro har) euskarak bizi duen egoera ulertze aldera. Bi hizkuntzen ukipen egoera gertatu ondoren ordezkapenera daramaten mugarriak ondorengoak dira: hizkuntza menderatuen funtzioen galera, hizkuntza menderatzailearen alde bakarreko elebakartasuna, gutxiagotasun konplexua, hizkuntza komunitatearen desagituraketa eta azkenik bere bidea jorratzea debekatzen dion legezko diskriminazioa.

Normalizazioaren bidea haustura tentsioa gertatzen denean hasten da. Urrats hauek ematen dira Txepetxen ustez: gune sinbolikoaren nuklearizazioa, komunitatearen trinkotzea, legedia aldaraztea, hizkuntzaren eginkizunen berrirabaztea eta gutxiagotasun konplexuaren desagitea. Honek hizkuntza garatu eta hiztunen behar berriak asetzen joateko bidea irekitzen du eta dinamika berri bat hasten du.

Haustura tentsiotik normalizazioan aurrera joateko gakoa hizkuntzaren aldeko **diskurtso berri bat** zabaltzean dago. Horren inguruan gertatuko da hiztun osoen gune sinbolikoaren nuklearizazioa eta komunitatearen artikulazioa.

Hizkuntza gutxitu batek, bere normalizazio prozesuan arrakasta lortu ahal izateko, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio kualitatibo berri bat eskuratu behar du: **Berdintasunaren Diskurtsoa** bereganatu eta bere izenean jardutea, hain zuzen ere. Inork ez du euskararen normalizazioaren beldur izan behar, diskriminazio berri bat dakarrela pentsatuz.

Gune sinbolikoaren nuklearizazioa urrats erabakigarria da hizkuntza komunitatea trinkotzeko, eta modu honetan normalizazioa lortzeko. Garrantzitsuena Txepen ustez alde kualitatiboak dira; horiek bermatuz gero, kantitatea ere lortuko delakoan. Norbanakoak dira garrantzizkoenak, kontzientzia maila nahikoa duten hiztuna. Eta pertsona horiek ulertzea euskararen normalizazioa lotuta dagoela Berdintasunaren Diskurtsoarekin eta euren borroka dela herri, kultura eta hizkuntza guztiek bizitzeko duten eskubidea defendatzea.

**Margenes de encuentro. Bilbao y el euskera.**

Txepetxekin jarraituz, eta ikerketa lan hau Bilbon zentratzen denez, ezinbestekoa da berak 1999.urtean Bilboko euskararen egoeraren inguruan egindako lana aztertzea:

Lan honetan bere teoriak Bilboko errealitate soziolinguistikoa egokitu zituen Sánchez Carriónnek. *Mikel Zalbidek* pasarte esanguratsuenak bildu ditu *HIZNET eko Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko* ikasgaian.(1)

-Bilboko hizkuntzaren egoera: Bilboko errealitatea soziolinguistikoa ez da asko aldatu Txepetxek lan hau egin zuenetik gaur arte. Ezagutzak gora egin duela nabarmendu liteke, baina erabilera ez da neurri berean igo. Bilboko hizkuntzaren egoerari dagokionez, Txepetxek bi Bilboren existentzia nabarmendu zuen: Bilbo erdalduna eta Bilbo euskalduna. Bilbo erdalduna normalizatua dago ia maila guztietan, Bilbo erdalduna AB da beraz. Bilbo euskalduna, aitzitik, ez dago normalizatua, ez dago bermatua hizkuntzaren mantentzea edo ugaltzea ahalbidetuko dion gutxieneko maila. Euskarari asko falta zaio Bilbon B hizkuntza izateko. Esparru formaletan (administrazioa, hezkuntza...) gehiago antzematen da euskara esparru ez-formaletan baino, baina hala ere 3 ezaugarriren falta azpimarratzen du Txepetxek euskara Bilbon B hizkuntza ez izatearen arrazoiaren artean:

- Euskarak ez dio erdarari hiztunik kentzen
- Euskararen ezagutza maila ez da erabileran gauzatzen
- Bilboko euskarak ez du erdigunerik

Izateko nahia: 1999.urtean Txepetxek Bilboko hizkuntza komunitatearen izateko nahia azpimarratu zuen, eta aspektu honek ondorengo urteetan indarra hartu duelakoan nago. Aipatzen zituen ezaugarriak bere horretan dira:

- Euskaldun kopuruaren gorakada.
- Guraso euskaldunen hizkuntza leialtasuna.
- Gazteen artean euskaldun proportzio handiagoa gainerako adin taldeetan baino.
- Euskararen aldeko ekimen ugariak.
- Hainbat talde eta lagunek euskaldun bezala bizitzeko egiten duten ahalegina
- Eskoletan eredu euskaldunen aldeko apustua egitea.
- Euskalduntze prozesua amaitu eta BA euskaldun osoak izatera iritsi direnen multzo handia.

1-ZALBIDE, M. *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET 17-18

Baina aldeko faktore hauetaz gain, argi dago Bilbon euskararen suspertzearen aurkako hainbat ezaugarri ematen direla. Txepetxek ondorengoak nabarmendu zituen, eta horiek ere egun bere horretan daudelakoan nago:

-Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea

-Euskara normalizatzea euskaldunen eta erdaldunen arteko berdintasunerako elkarbizitza eredu berri bat lortzea dela ez da ondo ulertzen.

-Gazteen eta helduen arteko desoreka demografikoa dela eta hiztun osoen multzoa sakabanatua dago. Horren arriskutzat Sánchez Carriónnek aipatzen du gazteak kalitatezko eredu gabe eta ondorioz artikulaziorik gabe geratu daitezkeela.

Etorkizuna: Duela bi hamarkada Sánchez Carriónnek bere lan honetan egindako planteamenduak gaurkotasun osoa du egungo Bilboko errealitateaz gabiltzanean:

Baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak egon badaude (izate nahia, eta euskaldun kopurua), beraz, zer egin behar dute Bilboko euskaldunek euren hirian euskaraz normaltasunez funtzionatu ahal izateko? Posible al da? Galdera horri erantzuten saiatuko gara sakontze egitasmo honetan. Txepetxek dioenez gakoa Bilboko gune sinbolikoaren nuklearizazioan dago.

Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak

Iñaki Martínez de Lunaren Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak HIZNET graduondoaren 6.1 ikasgaitik (2) ondorengo pasarteak aukeratu ditut erabateko lotura dutelako egin den ikerketarekin. Erabileran eragiten duten faktoreen inguruan autore ezberdinen lanen laburpen oso interesgarria baita honakoa.

Egoera elebidun edo eleanitz batean hizkuntzetako bat erabilia izan dadin bete behar diren baldintzak hiru mailatan sailkatzen dira: maila indibiduala edo norbanakoarena, maila mikrosoziala eta maila makrosoziala. Elkarri eragiten dioten hiru dimentsio dira, continuum bat osatzen dutenak.

Dimentsio makrosoziala: Gizarteko maila makroaz hitz egiten dugunean, *Joshua Fishmanek* definitu zituen gizarteko jardun-guneaz ari gara; hau da, dimentsio orokor eta objektiboaz ari gara. Norbanakoarengandik eta bere hurbileko egoeretatik haratago ematen da, eta bere baitan biltzen ditu maila mikrosozialekoak diren egunerokotasuneko gizarte egoerak (Fishman, 1979: 73-75). Azken buruan, nolako baldintzak hizkuntza baten maila makrosozialeko jardungunetan, halako aukerak hizkuntza hori erabilia izan dadin maila mikrosozialeko egoeretan.

2-- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. *Euskararen egoera hainbat gizarte eremutan. 2017-18 HIZNET*

Gizartearen dimentsio makrosozialean honako osagai hauek aurkitzen ditugu nagusiki: estatus juridikoa, gizartearen babes maila eta hizkuntza politika.


Norbanako dimentsioa: Norbanako dimentsioan nagusiki bi osagai aurki ditzakegu: gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Ukipen egoeran dauden hizkuntza batzuen hiztunek hizkuntza horietako baten alde egin dezaten, maila indibidualeko baldintza horiek nahikotasunez bete beharko dituzte, *Sánchez Carrión “Txepetxek”* adierazi zuen bezala.

Hizkuntzaren gaitasunetik edo ezagutzatik hasita, beharrezkoa da gutxieneko maila bat izatea. Baina ez hori bakarrik. Beharrezkoa edo komenigarria da gutxienez, halaber, gaitasun hori ukipen egoeran dauden beste hizkuntzetan dugun gaitasun mailaren parekoa edo hobe izatea. Hau da, hizkuntzaren ezagutza erlatiboari erreparatu behar zaio; izan ere, oso litekeena da pertsonak, bi edo hizkuntza gehiago jakitean, hautatzea espontaneoki errazen suertatzen zaiona, horretaz kontziente izanda ala ez.

Horrekin batera, beharrezkoa da ere hizkuntza horren aldeko motibazioak eta jarrerak izatea, horiek edozein oinarri dutela ere: pragmatikoa, sinbolikoa, integratzailea edo besteren bat. Motibazio eta jarrera horiek kontzienteak ala inkontzienteak izan daitezke. Aldeko motibazio eta jarrerak mota askotakoak badira, handiagoa izango da hizkuntza horretara jotzeko pertsonak sentituko duen bulkada.

Hiztun gaituak direnen motibazio nahikotasunak ez dakar berez erabilera. Izan ere, norberaren mailatik harago badaude betebeharrezko bestelako baldintzak ere. Hortaz, oso posible da aldeko jarrerak isla zuzenik ez izatea erabileran, *Cooperen* arabera: “La normalización lingüística tiene más probabilidades de éxito en cuanto a las actitudes que en cuanto a los comportamientos” (Cooper, 1997: 217)





Gizartearen dimentsio mikrosoziala: Gizarte dimentsio mikrosozialean egoerak ditugu, *Joshua Fishman*ek definitzen dituen bezala. Gizarte egoerak hiru osagai zehatz eta jakinak biltzen ditu bere baitara: harreman funtzionala, kokapena eta denbora tartea. Egoera egunerokotasunaren bitartez gorpuzten eta gauzatzen da, ohiko funtzio sozial guztiak aurrera atera ahal izateko osatzen ditugun harreman-sareen bidez: etxean edo familian, laneko esparruan, lagunen artean, aisialdiko kideekin ari garenean, e.a. Hizkuntzaren erabilera, azken buruan, maila honetan gauzatzen da; ikuspegi horretatik, maila makrosoziala eta norbanako maila bigarren plano batean gelditzen dira.

Aurrez aipatutako norbanakoen gaitasunaz eta motibazioaz gain, *Amonarriz*ek dio hizkuntza jakin bat erabili ahal izateko, maila mikrosozialean beharrezkoa izango dela beste baldintza hauek ere betetzea: harreman sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; hiltunak beste hiltun horiek hizkuntza horretako hiltun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; talde batez ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere (*Amonarriz*, 1991: 40-41).

Baldintza horiek egoera sozial jakin batean betetzen badira, orduan izango da posible hizkuntza horretan arituko den harreman sarea osatu eta mantentzea. Dena den, ez da nahikoa aipatutako baldintzak betetzen dituen hiltun kopuru handia. Hiltun horiek dituzten elkarren arteko harremanek trinko ehunduta izan behar dute; era horretan hizkuntza komunitatea edo azpi komunitatea osatuko dute.

Badago horiez gain, ordea, analisi-eredu teorikoan aipatzen den hirugarren baldintza bat: hizkuntza-hautua egiteko ahalmena. Ahalmen hori, norberaren eta solaskideen hizkuntza-gaitasunetik eta motibaziotik haratago, botere harremanen menpe dago. Alegia, hizkuntza hautua, neurri handian, botere harremanen arabera izango da. Familiako hizkuntzan gurasoek seme-alabei ezartzen dieten bezala, lantokian nagusiak eta talde-buruak dira hautua egiten dutenak eta normalean beste langileek men egiten dute. Sakontze egitasmo honetan errealitate honen inguruan ere galdetu nahi zaie parte hartzaileei.

Solaskideen ageriko gaitasuna: *Amonarriz*ek aipatutako lehenengo eta bigarren baldintzak hauek ziren: “sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egoteaz eta hiltunak beste hiltun horiek hizkuntza horretako hiltun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea”

Solaskide dugun horren ezaugarri linguistikoak ezagutu ezean, gurean dagoen idatzi gabeko gizarte arauak erdarara jotzea agintzen digu; adibidez, saltokietako lankide eta bezeroen arteko kontaktuan, aurrez aurre, telefonoz edo internet bidezkoan. Halakoetan, soilik militantzia handiko euskaltzaleek, arau horri aurre eginez, hitz egingo dio euskaraz ezezagunari. Beste zirrikitu bat zabaltzen zaio euskarari hizkuntza-

paisaiak (errotuluek, karteak, oharrek...) zilegitasuna aitortzen badio hizkuntza horri; alegia, egoera horretan euskarak presentzia nabarmena badu. Hau da, hain zuzen ere, nire hipotesiaren funtsaren laburpena: egunerokoa euskaraz egiten dutenek ere ezezagunen aurrean gaztelera erabiltzeko joera dutela.

Harremanen trinkotasuna: Aurreko puntuan esandakoekin batera, eredu teorikoan aipatu den bigarren baldintza ere tartean dago; Amonarrizek horrela definitutakoa, hain zuzen: “taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea”.

Ohikoa da, adibidez, euskaldunak eta erdaldunak egoera berean nahastuta jardutea. Halakoetan, ezinezkoa da egoera horretan denek partekatuko duten hizkuntza euskara izatea. Kasurik hoberenean, bakan batzuen arteko harreman mugatuetan erabiliko da.

Hautua egiteko ahalmena: Arestian esan bezala, hizkuntza hautua botere-harremanen arabera erabaki ohi da, neurri handian. Ildo horretatik, Cooperen hitzak ekarriko ditugu lerro hauetara: *“La planificación lingüística puede iniciarse en cualquier nivel de la jerarquía social, pero es poco probable que de resultado a menos que las élites o las contra-élites la acepten y la promuevan”*. (Cooper, 1997:216)

Adibidez, taldeko lan-bilerak ezin ahalko dira euskaraz izan. Baina, hierarkia formalaz kanpo ere, botere harremanak maila informalean ere agertzen dira. Talde guztietan, lagun koadrilen barnean eragin handiko pertsonak eta giro horretan ezer bultzatzeko gauza ez direnak daude; bestela esanda, taldearen izaera eta funtzionamendua markatzen dituztenak eta horietara egokitzen direnak: Azken buruan, formala nahiz informala izan, egoera batean lidergoan dauden pertsonak markatzen dute hizkuntza-hautua.

Hizkuntza-jokaera

Herritarren hizkuntza-erabilerari dagokionean, egoera edo pertsona bakoitzarekin zein hizkuntza erabiltzen duten aztertzerakoan, alegia, pertsona horien hizkuntza-jokaeraz ari gara. Hori da Sakontze egitasmo honetan aztertu dena, testuinguru konkretuetan zein hizkuntza erabiltzen duten Bilboko herritar euskaldunek. Honen inguruan *SOZIOLINGUISTIKAKO ESKULIBURUAN (206) Belen Uranga eta Lionel Joly-k (3)* egiten duten ekarpena ondorengoa da:

Hizkuntza-jokaera hiztunak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten duten aukera linguistikoa da. Testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekuaren arabera hizkuntza bat edo beste aukeratzen du pertsona bakoitzak.

3-JOLY, L. eta URANGA, B. Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In ZARRAGA eta beste. 2010. Soziolinguistika Eskuliburua

Jarrera eta jokaera kontzeptuen inguruan eztabaida ugari egon dira jarreraren inguruko ikerketak garatzen hasi zirenetik. Funtsean, pertsona baten jarrera ezagututa bere jokaera aurreikustea posible den edo ez zen eztabaida nagusia. Izan ere, ikerketa horietan aitortutako jarreraren eta behaturiko jokaeren artean alde nabarmena egoten zen. Pertsona batek esaten duena sarri ez dator bat bere jokaerarekin; baina, hala ere, gizakiak oreka bat mantendu ohi du jarrera eta jokaeraren artean, beraz harremana egon badago (Lasagabaster, 2003: 49)

Jokaerak iragartzea ez da batere erreza, giza jokaera partikularrak aldagai askok eragindakoak izaten direlako, eta, ondorioz, aldagai horietako baten aldaketa nahikoa izan daiteke jokaera bera ere aldatzeko.

Jarrera aitortu eta ezkutuen arteko ezberdintasun nabarmendu beharra dago, aitortzen diren jarrerek ez dutelako erabateko sinesgarritasuna. Eta horregatik jokaerak behaketa zuzenaren bidez neurtzea ezinbestekoa litzateke.

Ondorio gisa, esango genuke, jarrera batek (kasu honetan hizkuntza batekiko jarrerak) ez duela beti jokaera bat ziurtatzen, baina jokaera batekiko prestutasuna adierazten dutela.



Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak (Martínez de Luna, 2004)

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko lotura: Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren artean lotura dagoela bistakoa da. Ezin da hizkuntza bat erabili hizkuntza horren jabe izan Gabe. Era berean, erabilera hizkuntza horren gaitasunaren mailaren arabera ere izan daiteke. *Iñaki Martínez de Lunak* dioenaren arabera, gaitasun eskasa dagoen kasuetan erabilera eza gertatuko da. Iza ere, nerabe elebidun gehienek erraztasun handiagoa dute erdaraz, eta, ondorioz erdararako joera izango dute. Gainera, gurpil-zoro bat da hori Martínez de Lunaren iritziz: gaitasunik ezak erabilera eza dakar, eta erabilera ezak gaitasuna gutxitzea. Hori dela eta ikerketa honetarako sortu dudak inkestako lehenengo galderak hizkuntza-gaitasunaren ingurukoak dira, gaitasun horrek erabileran izan dezakeen eragina aztertze aldera.

Euskararen erabilera eragozten duten arrazoiak: Hauek dira Martínez de Lunaren lanaren arabera euskararen erabilera eragozten duten arrazoi nagusiak:

EUSKARAREN ERABILERA (ETA ERABILERA EGOKIA) MUGATZEN EDO ERAGOZTEN DUTEN BALDINTZAK

Euskara norbanako mailan

- | | |
|-------------|--|
| -Gaitasuna | -Gaitasunik ez dutenak gehiengoa dira.
-Euskaldun askoren gaitasun erlatibo eskasa.
-Lekuan lekuko aldaera edo euskara batua ez jakitea. |
| -Motibazioa | -Interes apala.
-Motibazio izan-arazleen ahulezia.
-Truke-ordaineko motibazio apala.
-Euskarazko "gizarte arrakasta"ren eredurik eza. |

Euskara gizarte egoeren mailan (gizartearen maila mikroan)

- | | |
|------------------------------|---|
| -Baldintza demolinguistikoak | -Euskaldunen familia eta kale ingurune erdaldunak. |
| -Harreman sareak | -Euskarazko harreman sarerik eza.
-Euskarazko harreman sare berriak osatzeko zailtasuna. |

Euskara gizarte eremuen mailan (gizarte maila makroan)

- | | |
|--------------------------------|--|
| -Hizkuntzaren ageriko onarpena | -Euskarak ez du estatus ofizialik edo ez behar bezalakorik.
-Euskararen estatusik eza gizarte eremuetan |
|--------------------------------|--|

-Hizkuntzaren eraginkortasuna
eta ospea

-Funtzioen aldetik, euskara bigarren
mailako hizkuntzaren irudia
-Baserriari atxikitako irudia, ez
modernitateari
-Irudi politizatua eta marjinaltasunari lotua


Aurreiritziak

Nire hipotesiaren arabera, ezezagunen aurrean gaztelera erabiltzeko joeraren atzean barneratuta dauzkagun hainbat aurreiritzi daude. Bilbo bezalako hiri batean gehiengoak ez dakiela euskaraz uste dugu, eta horregatik da hain orokortua (idatzi gabeko lege bat jarraituz bezala) ezezagunekin euskara ez erabiltzeko ohitura. Era berean, ezezagunaren itxurak edo testuinguruak (auzo dotore bat edo gaztetxe bat izan) ere gure jokaera baldintzatzen duelakoan nago, eta aspektu hauek ere aurreiritzien ondorio dira: jende “pijoak” ez du euskaraz egiten, leku dotoreetan ez dute euskara egingo...

Soziolinguistika eskuliburuan Belen Uranga eta Lionel Joly-k ondorengoa diote honen inguruan:

Hizkuntza-aurreiritziak hizkuntzari buruzko uste orokortuak dira, beste modu batean esanda, ez-adituen hizkuntzalaritza. Uste orokortu horien eragina garrantzi handikoa da ondorio sozialak izaten dituztelako (Jesús Tusón, 1996). Amorrortu eta besteren hitzetan hainbat talde baztertzeko bestelako aurreiritzien isla izan daitezke, eta, gainera, euskararen testuinguruan garrantzitsuagoa dena, aurreiritziok elebitasun edo eleaniztasun egoera sustatzeko sano kaltegarriak izan daitezke, hizkuntza txikiari eustea edo ikasteko ahalegina egitea oztopatzen dutelako (Amorrortu eta beste, 2009: 155).

Tusónek dioenez, balio-judizioek sortzen dituzte hizkuntzekiko aurreiritziak, hau da, egitate judizio neutroak izatetik norberaren esperientzian, eta esperientzia kolektiboan oinarritutako judizioetara igarotzen dira, norberaren gustuan edo jasotako heziketan oinarrituta. Baina aztertu behar da judizio horiek egitateak diren ala ez, eta nola, sarri, oinarri faltsuetan finkaturik balio-judizio bihurtzen diren. Kontuan hartu beharreko lehen datua: hizkuntzen inguruko iritziak norberaren hizkuntza abiapuntutzat hartuta garatzen dira. Beraz, izatekotan ere, norberaren hizkuntzarekiko iritziak lirake, ez berezko egitate-judizioak. Beraz, aurreiritziek norberaren argazkia proiektatzen dute eta horien bitartez, munduaren eta pertsonen inguruko jarrerak eratzen dira. Egile horren iritziz, publiko egiten duguna gara, bereziki esaten duguna (Tusón, 1996: 18), eta aurreiritzi horiek jokaerak baldintzatuko dituzte.



Gainerako kasuetan bezala, hizkuntzekiko aurreiritziek balio positiboa edo negatiboa izan dezakete: gustuko dut/ez dut gustuko, ederra/itsusia, erraza/zaila... Hizkuntzen jarreretan gertatu ohi den modura aurreiritzi horiek ez dute eragiten objektuen gainean soilik; alderantziz, objektu edo gai jakin horrekin lotura duten gizaki edota giza taldeengan islatzen diren proiektzioak dira, eta hor sortzen dira benetako arazo etikoak (Tusón, 1996: 19).

Gehienetan aurreiritzi oztopatzaileei buruz ari garenean erdaldunen euskararekiko aurreiritziak datozkigu burura: euskara ikastea oso zaila dela...ez dela hizkuntza modernoa...Baina ikerketa honetan euskaldunok dauzkagun aurreiritziak nabarmendu nahi dira, geure hizkuntzan ez mintzatzeko geure buruari jartzen dizkiogun traba eta konplexuen eragile baitira.

METODOLOGIA

Sakontze egitasmo honetako ikerketa-lana aurrera eramateko bi metodologiak erabiltzea aukeratu dut, metodo kuantitatiboa eta metodo kualitatiboa. Biak osagarri baitira eta biak erabilia bakarrik lortuko dudalako ikerketa honen helburuak betetzea. Izan ere, metodologia bat edo beste aukeratzekoan ezinbestekoa da helburuak kontuan hartzea. Helburua Bilboko euskaldunen hizkuntza-ohiturak aztertzea izanik, inkestaren teknika eta eztabaida taldearena erabiltzea da asmoa, hurrenez hurren.

Metodo kuantitatiboa

Metodo kuantitatiboa gertakari sozialak deskribatzen eta azaltzen saiatzen da. Ikerlariak behatuz antzemateko eta erregistratzeko modukoak diren gertakari sozialak azter daitezke. Gertakari sozialak baliabide matematikoak erabiliz deskribatzen dira.

Oinarria kontaketa delako deitzen zaio metodo honi metodo kuantitatiboa, baina distributibo izenez ere ezaguna da, kontatzeaz aparte maiztasunak nola banatzen diren eta elkarrekin nolako harremana duten ere deskribatzen duelako.

Inkesta: Metodo kuantitatiboaren teknika nagusia da. Inkesta erabiliz, aztertu nahi den populazio osoari edo horren lagin bati ikerlariak sortutako galderei erantzuna emateko eskatzen zaio. Galdera itxiak eta irekiak egon daitezke, eta ikerlan honetan hizkuntzaren erabileran zentratuko dira batez ere.

Laginketa mota ezberdinak daude. Horiek ere helburuaren arabera finkatu beharrekoak. Nire kasuan ezinbesteko da aukeratutako populazioak era batean edo bestean egunerokoa euskaraz burutzea, horregatik **laginketa estrategikoa** aukeratu genuke: Laginketa ez probabilistiko bat da, zeinetan lagineko unitatearen aukeraketa irizpide subjektiboen arabera egiten den.

Ikerketa honetan, Bilbon euskaraz bizi diren 50 pertsonak osatuko dute lagin hau. Sexu, adin eta okupazio ezberdineko pertsonen bideratuko zaie galde-sorta. Aukeraketa honen desabantailen artean ondorengoa nabarmentzen da: ikerketaren emaitzak aztertutako kasuetatik haratago (Bilboko euskaldun guztiengana) estatistikoki orokortzerik ez dagoela. Hala ere, lagin mugatua izanagatik, emaitzek badute balioa, euskaldun askoren kasua bertan islatua delako neurri handian.

Metodologia kualitatiboa

Behin inkesta bidez datuak jaso ostean, datu hauetan gehiago sakontzeko eta horien zergatia ulertze aldera, metodo kualitatiboa erabiliko dugu. Inkesta erantzun dutenen artean pertsona batzuk aukeratu eta haien erantzunen arrazoi eta zergatiak ezagutzea da helburua. Bilbo bezalako hiri batean euskara edo gaztelania erabiltzera zerk

bultzatzen dituen, eta zeintzuk diren erabilera horrek ondorioztatzen dizkien sentrazio edo bizipenak.

Eztabaida taldearen teknika erabiliko dugu horretarako. Teknika honetan garrantzitsua da antzeko perfileko jendea elkartzea eta konfiantzazko giroa lortzea, gogoeta bultzatze aldera. Euskara erabiltzen duten herritarrak izanik enpatia eta hurbiltasun hori bermatua egongo dela suposatzen da. Interesgarria deritzot 4-5 pertsonatako talde horretan adin, sexu eta okupazio ezberdinetako jendea biltzea, bizipen eta iritzi ezberdinak jasotzeko helburuarekin.



TESTUINGURUA


Ikerketa hau Bilbon oinarritzen da. Edozein ikerketatan testuinguruari erreparatzea garrantzizkoa baldin bada, kasu honetan ezinbestekoa da Bilboko errealitate soziolinguistikoaren azterketa egitea. Urte ezberdinetan egindako ikerketek erakutsi digute Bilboko herritarren zati garrantzitsu batek ez dakiela euskaraz, eta dakitenen artean ere gehiago handi batek ez duela egunerokoan euskaraz jarduteko ohiturarik; datu edo azterketa soziolinguistikoak erreparatu gabe ere, nahikoa da Bilboko kaleetatik buelta bat ematea errealitate horren jabe izateko. Kaletik jendea euskaraz entzuteak atentzioa deitzen baitu.

Gaztelaniaz hitz egiteko joera orokor horren atzean, ordea, giro eta ingurune konkretu batzuetan Bilbotar batzuk neurri handi batean euskaraz bizitzeko ohitura dute, eta horiengan zentratu dut ikerketa hau. Herritar horiek euskaraz zein testuinguru arrotzean jarduten duten ikustaraztea da atal honen helburua.


BILBOKO DATUAK

Testuinguruaren azterketa hau **EDBko informazioarekin osotuko dugu, bertako datu eta grafikoak erabiliko ditugu** Testuinguruaren atal osoan zehar (4). Halaber, Bilbo bezalako hiri batean udaletxeak euskararen inguruko datu eguneratuak ez izatea oso adierazgarria dela azpimarratu nahi dut.

4- EDB datu basea. Biztanleria Zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak, EUSTAT Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako. Euskarabidea (1991, 2001 eta 2011) Nafarroa Garairako. Soziolinguistikazko Inkesta, Ipar Euskal Herrirako (HPS).

HIZKUNTZA GAITASUNA


Hizkuntza gaitasunari lotutako hiriburuko datuei erreparatzerakoan 2011ko datuak dira gaurkotasun handiena dutenak. Bilboko herritarren artean erdaldunak gehiengoa izanik ere (%48,7), euskara dakitenen kopurua nahiko esanguratsua da, %23. Arreta deitu dezakeen datua da hau, Bilboko kaleetan entzuten den euskara kopurua ez delako urrundik ere portzentaje horretara iristen. Hizkuntza gaitasunak erabileran eragiten du, noski, baina ez da faktore bakarra, eta datu hauek horren lekuko dira.




Grafiko honek era argi batean erakusten du azken hamarkadetan euskararen ezagutzak Bilbon bizi izan duen gorakada. 80. hamarkadan euskara zekiten bilbotarren kopurua oso baxua zen, eta hurrengo 20 urteetan gorakada handia eman da; joera hau 2006.urterarte mantendu da, eta azken urteetan geldialdia antzematen da.

ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA


Ikerlan honetan herritarren hizkuntza ohiturak aztertzerakoan kontuan izan ditut adinaren eta sexuaren aldagaiak. Horregatik Bilboko errealitate soziolinguistikoaren argazki orokor honetan adin eta sexuaren araberako datuak jasotzea interesgarria iruditu zait, ondoren nire hipotesiarekin eta egindako inkesten emaitzekin alderatzeko.






Adinari dagokionez, hizkuntzaren ezagutza faktore erabakigarria dela argi eta garbi islatzen du grafikoak, alde izugarria baitago bilbotarren euskara gaitasunean adinaren arabera: 2-14 urteko haur eta gaztetxoek artean dago euskaldun kopuru handiena, eta ordea 64 urtetik gorakoek artean oso gutxi dakite euskaraz Bilbon.

Sexuari dagokionez, ordea, ez da ezberdintasun aipagarriarik ikusten datuotan; euskaldun, ia euskaldun, eta erdaldunen kopuruak proportzio eta kopuru antzekoetan ematen baitira.


LEHEN HIZKUNTZA

Euskara lehen hizkuntza edo ama hizkuntza bezala duten bilbotarren kopurua baxua da oso. Eta ezagutzaren bilakaerarekin gertatu ez bezala, arlo honetan ez dugu goranzko joera aipagarriarik eduki azken urteetan (gorakada txiki bat ikusten da grafikoan, baina nahiko era apalean). Ondorioztatzen duguna da Bilboko herritarren artean euskararen ezagutzak izan duen gorakada nabarmenaren atzean ez dagoela familia bidezko transmisioa; eskolak eta euskaltegiak daudela hizkuntza gaitasunaren bilakaeraren atzean, alegia.

Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bilbo, 2011 (%)




Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Bilbo, 2011 (%)





Lehen hizkuntzan adinari dagokionez, datu esanguratsu bat ikus daiteke grafikoan: kopuru altuenak bi muturretan kokatzen direla, alegia. Ume eta gaztetxoek (2-14 urte)

eta 64 urtetik gorakoen artean daude beraz, euskara ama hizkuntza duten Bilbotar gehienak.

ETXEKO HIZKUNTZA



Euskara etxeko hizkuntza duten bilbotarren datuak are kezkarriagoak dira. Erdara jaun da jabe da etxeko hizkuntza bezala, % 90,6arekin; euskarak, aldiz, %3,2 ko datu anekdotikoa baino ez du. %4ak erabiltzen ditu bi hizkuntzak etxean. Era berean, arlo honetako bilakaeraren datuek erakusten digutena gorakada apal bat baino ez da.




Adinaren aldagaiari erreparatuz, haur eta gaztetxoek artean ematen da gehien euskara etxeko hizkuntza bezala. Adinak aurrera egin ahala, ordea, behera egiten dute kopuruek.


Sexuari dagokionez, ez da ezberdintasun aipagarriarik ikusten emakume eta gizonen artean arlo honetan ere ez.

KALE ERABILERA

Ondorengo 4 grafikoak dira gure ikerlanarekin lotura estuena dutenak. Eta Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketek eskertu, gainera, gaurkotatutako handiko datuak dira. 2016. urtean egindako neurketen emaitzak (5)



(5) Soziolinguistika Klusterra-Kale neurketak. 2016



2016ko grafiko hauek hiri honetako euskararen errealitate gordina era adierazgarri batean erakusten dute. Herritarren ia %94ak gaztelania erabiltzen duela Bilbon alegia. Are gehiago, beste hizkuntza batzuetan mintzatzen den herritarren ehunekoa (% 3,5) handiagoa da, euskaraz hitz egiten dutenena baino. Euskararen erabilera ez datorrela euskararen ezagutzak izan duen gorakadarekin bat gauza jakina da, baina Bilboren kasuan, erabileraren bilakaera aztertzen dugunean datu esanguratsu eta kezagarriak ikus ditzakegu:

1989an_____ %2,5

1993an_____ %4,3

1997an_____ %4,5



2001ean_____ %4,6

2006an_____ %4,3

2011ean_____ %3,2


2016an_____ %2,5

Hasierako urteetako goranzko joera 2006. urtetik aurrera beherakada nabarmenean ikusten da. Gaur egun hiri honetan euskara dakigunon kopuru esanguratsua ikusita, benetan harrigarria da kale erabileraren 1989ko portzentaje bertsuak jasotzea.



Adina kontuan hartuz, orain arteko datuen antzera, adin baxuko herritarren artean dezente altuagoa da euskararen erabilera; eta adinak aurrera egin ahala kopuruak behera egiten du.

Sexuari erreparatuta ordea kontuan hartzeko bezalako ezberdintasuna ikusten da gizon eta emakumeen arteko erabileran: gizonen artean % 2,3k egiten dute euskaraz, eta emakumeen artean ordea %2,7k.



EMAITZAK

Bilbon euskaraz bizi diren herritarren inguruko ikerlana da hau; egunerokoa orokorrean euskaraz egiten dutenengan zentratua. Nire hipotesia da hurbileko jendearekin euskaraz aritzen direnak ere ezezagunekin lehen hitza erdaraz egiteko joera dutela. Joera horretan aurreiritziek asko eragiten digutela uste dut, eta adina eta sexua gure hizkuntza ohituretan zer esan handia duten aldagaiak direla. Horiek beraz nire hipotesiak. Jarraian, lortutako datuetatik ateratako ondorioak. Betiere kontuan hartuta lagin mugatu batekin egin dudala azterketa eta horrek errealitatearen argazkira hurbilpentxo bat egitea baino ez digula ahalbidetzen.

METODO KUANTITATIBOA ETA METODO KUALITATIBOA: INKESTA ETA EZTABAIDA TALDEA

Jasotako inkestekin 54 pertsonatako lagina osatu dut. Inkesta gehiago jaso arren batzuk kanpoan geratu behar izan dira emakume, gizon eta adin tarte ezberdinetako kopuruak proportzio berekoak izan zitezen. Nabarmendu nahi dut askoz gehiago kostatu zaidala gizonetzkoen erantzunak jasotzea, bai gaztetxoaren artean eta baita helduen artean ere; datu hori, ondorengo grafiko eta tauletan islatuko ez den arren, oso esanguratsua da (interes falta?, konpromiso maila baxuagoa? Hainbat ondorio atera daitezkeelakoan nago)

Lagina, beraz, 3 adin talde ezberdinetako gizon eta emakumeek osatzen dute. Adin taldeak zehazterakoan EDBko ereduja jarraitu dut:

-16-34 urte bitarteko 18 pertsona

-35-64 urte bitarteko 18 pertsona

-64tik gorako 18 pertsona

Ikerketa honetan sexuaren aldagaia ere hizpide izan dudanez talde bakoitzean 9 emakumeren eta 9 gizonen erantzunak jaso ditut.

Eztabaida taldeari dagokionean, 5 pertsonako talde bat osatu nuen, bertan adin eta genero ezberdineko herritarrek bildu nituen. Izan daiteke adin ezberdineko pertsonen artean egon daitezkeen ezberdintasun ugariak muga bihurtzea mota honetako eztabaida talde bat egiterako orduan: berdinen artean lasaiago sentitu ohi gara, eta konfiantzazko giro hori ezinbestekoa da norberak pentsatzen duena lasai esan ahal izateko. Baina kasu honetan konfiantza eta lasaitasun giro hori lehenagotik ziurtatua nuen, auzotik elkar ezagutzen duten pertsonak bildu bainituen.


45 minutu inguruko solasaldia izan zen, giro ezin hobean. Nik neuk egin nituen dinamizazio lanak, horretarako gidoitxo bat neraman prest jorratu nahi nituen gaien inguruan galdera labur eta sinple batzuekin osatua. Nire parte hartzea ahalik eta txikiena izatea nahi nuen, eta halaxe izan zen, erraz animatzen ziren hitz egitera, eta gutxitan egon zen eztabaida bideratzeko beharra. Holakoetan ohikoa izan ohi denez, batzuek beste batzuek baino gehiago hitz egin zuten, baina orokorrean denek eduki zuten protagonismoa eta zer esana.

Eztabaida saioa grabatu eta gero bertatik transkribapenak egin ditut pasarte interesgarrienetarik.

Anonimotasuna mantendu arren, bakoitzaren aipuaren ondoan adina eta generoa zehaztu ditut. Bi aldagai hauek gure hizkuntza ohituretan izan dezaketen eragina baloratze aldera informazio osoagoa edukitzeko.

Atalez atal inkestan eta eztabaida taldean jasotako emaitza kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsuenak aztertuko ditut jarraian.

EUSKARA GAITASUNA




Nire ikerketa lana Bilbon neurri batean edo bestean euskaraz bizi den jendearengan oinarritu dut, grafiko honetan inkestan parte hartu duten herritarren hizkuntza gaitasuna islatua ikusten da; **“zure euskara gaitasuna nolakoa dela uste duzu?”** galderari gehiengo handi batek (% 98k) oso ona edo ona dela irizten baitio.

Hizkuntza gaitasunaren inguruko informazio zehatzagoa jasotze aldera euskaraz pentsatzen ote duten, euskaraz hobeto adierazten ote diren, euskarazko ikasketak burutu dituzten edo euskara lehen hizkuntza ote duten galdetu zitzaien.


OROKORREAN EUSKARAZ PENTSATZEN DUT

■ GUZTIZ ADOS ■ NAHIKO ADOS ■ EZ OSO ADOS




EUSKARAZ HOBETO ADIERAZTEN NAIZ

■ GUZTIZ ADOS ■ NAHIKO ADOS ■ EZ OSO ADOS ■ BATERE ADOS EZ



Hizkuntza baten gaitasuna neurtzeko orduan adierazgarriak dira pertsona batek zein hizkuntzatan pentsatzen duen, eta pentsatzen duen hori zein hizkuntzatan adierazten duen hobeto. Galdera hauen erantzunak erreparatuz ez dago ezberdintasun aipagarriarik, ez adin ez genero artean ere. Aukeratutako laginean gehiengo nabarmenak euskaraz pentsatzen du eta euskaraz adierazten da gaztelaniaz baino hobeto.



“Euskaraz egin ditut ikasketak” galderaren aurrean bi erpinetako erantzunak jaso dira tarteko aukerarik gabe: **16-34 eta 35-64** urteen arteko bilbotarren % **100ak** “**guztiz ados**” batekin erantzun dio; **64 urtetik gorako**en inkestak %**100ak** ordea “**batere ados ez**”. Emandako erantzunek adinaren aldagaiarekin lotura dutela esan genezake, beraz.

Hala ere, zehaztu behar dut 35-64 urte tarte horretan jasotako inkesta gehienak 40 urteen inguruan dabilzan herritarrek betetakoak izan direla, eta horregatik ulertu daiteke ikasketak euskaraz burutzeko aukera izandakoak izatea denak. (Adin ezberdindun jendea bildu nahi izan dudan arren ez dut nahi bezain talde heterogeneoa lortu)


Eztabaida taldean, hizkuntza gaitasunaren eta ezagutzaren inguruan hitz egingakoetatik ondorengo pasarteak iruditu zaizkit aipagarrienak:

“pentsatu...euskeraz, eta adierazi, edo espresatu...ba antzera. Igual gai batzuen inguruan, gai teknikoagoak direnean eta...erderaz adierazten naiz hobeto. Ikasi ere, dana erderaz ikasitakoak gara gu eta...Hori igarri egiten da, euskaldun zaharra izan arren, irakurtzeko eta idazteko... euskeraz idatzi eta irakurtzeko komeriak!” 65 urteko gizona

“...ni gaztetan etorri nintzen Bilbora bizitzen, eta gure herrian erdera ez zen inon ere entzuten,...ez genekien apenas. Bilbora etorri ta eskiña guztietatik erdera bakarrik entzutea gogorra izan zen,...derrigortuta zaude erderaz ikasi eta erabiltzera; gaztetxutan ez nekien, eta askotan ratu txarrak ere pasa nituen.” 67 urteko emakumea

“...gurasoak erdaldunak dira, baina ikastolara bidali ninduten, eta euskeraz egin nituen ikasketak, lagunak,...etxean erderaz egin arren nire burua euskeraz doa,...eta adierazi ere uste dut hobeto adierazten naizela euskeraz.” 33 urteko emakumea

ERABILERA



Alde teorikoa landu dudanean behin eta berriz errepikatu da hizkuntza gaitasunak, ezagutzak alegia, ez duela erabilera ziurtatzen.; hala ere, nik proiektu honetan nire inguruko euskaldunak izan ditut oinarri eta jakin badakit orokorrean euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak direla.

Grafiko honek inkestan parte hartu duen laginaren hizkuntza erabileraren zertzelada orokor batzuk eskaintzen dizkigu, eta, era berean, nire hipotesiaren oinarria konfirmatzen da (lagin mugatua dela kontuan izanda betiere): denak euskaldunak direnean, etxekoekin edo lagunartean euskara egiteko joera duten euskaldun horiengan ere **ezezagunen aurrean gaztelera**z hitz egiteko joera orokortua dagoela. Inon idatzi gabeko lege bat balitz bezala funtzionatzen duen gizarte araua da, eta inkestatutako gehiengo handi batek (54 pertsonatik **37k**) ezezagunen aurrean gaztelania erabiltzen dutela aitortu dute, **gehienetan edo beti**.

Euskararen erabilera orokortuena familiaren esparruan ematen da, eta aipatzekoa iruditut zait euskaldunak izanik **lagunartean beti euskara** erabiltzen dutenen kopuru baxua (54 pertsonatik **6k bakarrik**).

Eztabaida taldean euren euskararen erabileraren inguruan galdetuta, ondorengo aipuak nabarmendu nahi ditut:


“Bilbon ez da erreza beti euskeraz eitea,...eta argi dau askok ez dauriela eiten, kaletik oso arraroa eiten da baten bat euskeraz entzutea, bilbo erditik eta... Baina bakoitzan ingurua zein dan...ba horrek asko eiten dau, eta nik neuk famili ta lagunaren artean euskeraz eiten dot horrexegaitik.” 35 urteko gizona

“Familiari bai, nire etxean beti egin dugu denok euskeraz. Baina lagunartean...denok dakigu euskeraz, ikastolakoak gara, unibertsitatean ere karrerak euskeraz egiten ari gara kuadrilako denak,..Baina, ez dakit oso ondo zergaitik, egia da erderaz ere nahikotxo egiten dugula.” 20 urteko neska.

“Jarrera kontua da. Ni euskalzalea, eta euskara irakaslea izandakoa gainera...ikasle denen atzetik beti euskeraz egiteko esaten...(barreak). Berez igual ez zitzaidan beti aterako, baina aspaldiko urteetan militantzi moduko bat,...neure buruak esan nion printzipioz beti egingo nuela euskeraz, eta gero besteak ez dakielako edo...ba gaztelania ere erabiltzen dut klaro! Baina jarrera kontua da, gurea bezalako ingurune erdaldun baten.... jarrera kontua da.” 67 urteko emakumea.

Jarraian erabilera esparru horietan banan-banan jasotako emaitzak aztertuko ditut eta aldagaien arabera ezberdintasunetan erreparatuko dut horietako askotan

ERABILERA FAMILIAN



Etxeko giroan euskara jaun eta jabe da guk aztertutako herritarren artean..... Adin eta genero ezberdinekoek zentzu berean erantzun diete bi egoera hauei: **“etxean denon artean euskaraz hitz egiten dugu”** baieztapenaren aurrean 54tik **47 nahiko ados, edo guztiz ados** agertu dira. **“Familiakoekin gaztelania erabiltzen dut normalean”** baieztapenaren aurrean, ostera, **49** lagun azaldu dira **“ez oso ados”** edo **“batere ados ez”**.


Eztabaida taldean familiako hizkuntza ohituren inguruan:

“Etxean beti. Eske...erderaz,...oso arraroa izango zen. Batzutan aitak bronka botatzen digunean igual erderaz,...(barreak).” 20 urteko neska.

“Gure alabekin beti egin dugu euskeraz etxean. Gaztetxoago zirenean eduki zuten ratxa bat haiek ere, lagunekin eta mutilen batekin erdera gehiago erabiltzen zutenak, ikastolan irakasleek esan ere bai inoiz, erdera asko egiten zutela. Baina etxean etxekoekin euskeraz danok.” 65 urteko gizona

ERABILERA LAGUNARTEAN

Gauzak ez dira hain argiak lagunarteko erabilerari dagokionean. Proposatutako egoera edo baieztapenetatik ondorio xume batzuk atera daitezkeelakoan nago.



Taula honetan atentzioa deitzen duten bi aspektu nabarmendu nahi izan ditut:

Alde batetik: denak euskaldunak izan arren gaztelania eta euskara tartekatze joera gehiago dutela gaztetxoek eta gazteek (berrirori ere kontuan hartuz bigarren adin talde horretako pertsona gehienak ez zituztela 40 urte baino gehiago); egoera honen

aurrean **“guztiz ados”** edo **“nahiko ados” 11 gaztetxok** eta **10 gaztek** erantzun baitute, eta 64 urtetik gorako 6 pertsonak bakarrik.


Bestalde, eta bereziki, joera hori aitortu dutenen artean gizonezkoen kopuruaren nagusitasuna: baieztapen honekin ados zeudenen artean (guztiz edo nahiko) 20 gizonezko eta 7 emakume agertu baitira.

Adina eta sexua hizkuntza baten erabileran eragina duten aldagaiak liratekeenaren isla.

Eztabaida taldean lagunarteko erabileraren inguruan:


“Batzutan bai, kuadrilan batez be danok juntetan garenean eta,...eta igirri eiten da ganera euskeraz hobeto moldatzen garela, baina...bat hasi, besteak segidu,...eta egie da, konturatu be ein barik, tarte luzeak eiten duzela holan...Erderaz baino gehau igual nahastean euskeratik erderara eta buelta,...” 35 urteko gizona

Gu kuadrilan danok gara euskaldunak, ikastolan irakasle giñela egin ginen lagun eta euskeraz hitz egiten dugu gure artean beti; baina askotan egoten da baten bat,...kuadrila kanpoko edo hurbilekoa,...baina euskeraz ez dakiena. Edo gutako batzun gizonak be, erderaz hobeto moldatzen direla, eta...holakoetan erderara jotzen dugu, eta klaro, askotan ibiltzen gara erderaz horregatik. Baina! Zer egin behar da holakoetan? Ez da erreza...” 67 urteko emakumea



Egun gero eta gehiago erabiltzen ditugu teknologia berriak elkarren artean komunikatzeko. Ohikoa da koadrila osoak bakoitza bere mugikorrera so ikustea elkarren artean hitz egiten egon beharrean. Hizkuntzaren erabileraren argazki osoa biltze aldera sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan galdetu zaie inkestatuei.

Emitza ezberdin edo askotarikoak jaso direla ematen du grafiko hau begiratzerakoan; ez du ematen joera orokorturik edo atentzioa deitzeko bezalako zenbakirik dagoenik. Datuak zehatzago aztertzen badira, ordea, badago zer aipatu.





Generoen arteko bereizketa esanguratsua izan liteke, gutxienez.

Eztabaida taldean, sareen inguruan egindako aipamenetatik:

“nik asko erabiltzen ditut sareak,...asko (barreak), eta gehienetan euskeraz. Igual inoiz jende gehiagorengana heltzea nahi dudanean edo...erderaz, baina oso gutxitan. Sareak pentsatzen duguna esateko forma bat dira, eta normalean euskeraz pentsatu eta eukeraz hitz egiten dudanez, ba,...berdin!” 33 urteko emakumea

“Nik ez ditut gehiegi erabiltzen, baina egia da euskeraz irakurtzea eta idaztea gehiago kostatzen zaidala, eta askotan interneten gaztelaniazko orriak irakurtzen erosoago egoten naiz. Horregatik igual, erabiltzen dudana apurra erderaz gehiago.” 65 urteko gizona

ERABILERA LANEAN**EUSKARA DA LANEAN ERABILTZEN DUDAN
HIZKUNTZA****EUSKARA NAGUSI IZAN ARREN
GAZTELANIARA JOTZEKO OHITURA**

Lan esparruko erabilerari dagokionean aipatu behar dut ez dudala adin eta sexuaren arabera ondorio nabarmenik atera; are gehiago, bakoitzaren erantzunak lanpostuarekin lotura zuzenagoa zutelakoan nago, beste edozein aldagairekin baino. Elkarriketatutako askok irakaskuntzan lan egiten dute eta horiek euskararekin lotu dute euren laneko ahozko jarduna. Besteek ez hainbeste.

Nabarmendu nahi dudan aspektua ondorengoa da: lanean oro har euskara erabiltzen dutenek ez dutela gaztelaniara jotzeko ohiturarik. Badirudi lagunarteko eremu hurbil eta informalean errazago jotzen dugula gaztelaniara eremu formalagoetan baino.

Eztabaida taldean ondorengo pasarteak eman ziren:


“Ni jubilatuta nago, baina lanean gaztelania erabili izan dut beti, oso gutxik zekiten euskara nire lantokian, eta gainera dena erderaz zen, lana bera erderaz egin behar genuen. Bi mundu desberdin ziren niretzat, lagun kuadrila eta etxekoein euskaraz normalean,...ta lanean eta lanekoekin erderaz...beti gainera. Eta igual baten batek euskara zekiela jakin arren, berarekin ere erderaz egiten jarraitzen nuen.” 65 urteko gizona.


“Euskaltegiko irakasle ixinde, (barreak), ba gurean dana beti euskeraz klaro!” 35 urteko gizona.

“...guk be euskaraz. Eta gu euskaldunak gara etxetik, baina nik ikastolan irakasle askori ikusi diot,...igarri euskaldun berriak direla, igual ez dutela ondoegi ere egiten, baina piloto automatikoa jarri eta gure ikastolan behintzat beti euskaraz egiten zuten irakasle guztiek. Askok esan didate euskaltegi onena izan dela ikastola haientzat.” 67 urteko emakumea.

ERABILERA EZEZAGUNEKIN

Ikerlan honetako muina atal honetan dago. Ezezagunekin eremu edo inguru ezberdinetan erabiltzen den hizkuntzaren inguruan hainbat galdera planteatu zitzaizkien 54 bilbotarrei, euren hizkuntza ohiturak ezagutu asmoz. Eremu formalean (administrazio publikokoan, bulegoetan...) kalean zerbait galdetzerakoan, saltoki eta komertzioetan edo tabernetan erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan galdetu zitzaien zehazki.





Grafikoa, maneiatzen ditugun datuen mugak jakin arren, nahiko esanguratsua da.

Eremu formalean askok adierazi dute euskara erabiltzeko ohitura (**beti edo gehienetan euskara** erabiltzen dutenak **31** dira 54tik). **Kalean zerbait galdetzerakoan** edo **saltoki eta komertzioetan** ordea, gazteleraren aukerak nabarmen egiten du gora: kalean zerbait galdetzerakoan gaztelania gehienetan edo beti erabiltzen dutenak **35** izan dira, eta saltoki eta komertzioei dagokienez erantzun bera eman dutenak **34**. **Tabernetan** erabiltzen duten hizkuntzari erreparatuz erantzunak parekatu egiten dira, **15ek gehienetan euskara** erabiltzen dutela diote, **17k euskara eta gaztelania antzera** erabiltzen dutela, eta **14k gehienetan gaztelera** erabiltzen dutela.


Eztabaida taldean atal honetan eman zen parte hartze handiena eta baita mamitsuena ere, euren bizipen edo jarrerez hitz egiten hasi ziren eta hausnarketa pertsonalak ere izan zuten lekua:

“Ezezagunei, kasi beti erderaz, eta pentsatzen jarrita ez genuke holan egin beharko,...Baina beti pentsatzen dut ez dutela euskeraz jakingo, edo...lotsagatik, badaezpada,...” 20 urteko neska.

“Igual itxuran arabera be asko eiten dot. Nire pintan antzeko gazteren bat edo ikusten bot, ba euskeraz,...baina orokorrean bestela erderaz.” 35 urteko gizona.

“....arazoa da pentsatzen dugula beste pertsonak igual txarto hartuko duela euskeraz egin eta berak ez badaki, eta ez zen horrela izan beharko, de echo, nik uste dut ez dela. Eta guk horri aurre hartu eta erdaraz egitea hasieratik,...ba horrela normala euskara holako hirietan dagoen moduan egotea.” 33 urteko emakumea.

Datu orokor hauen atzean zenbait aspektu nabarmendu nahi nituzke, bata adinarekin eta eremuarekin lotutakoa, eta bestea generoaren ikuspegitik antzemandakoa.




Datu hauek eremu konkretu batzuetan ezezagunak izan arren gaztetxo eta gazteek euskara erabiltzeko ohiturari eusten diotela erakusten dute. Tabernen eremuan erosoago edo libreago sentituko dira adin gazteagokoak agian, eta euren berezko hizkuntzari eutsi. Era berean, ondoren azalduko den bezala, inkestatuetako askok onartu dute azken galderei erantzuterakoan giroa edo ezezagunaren itxurak asko eragiten diela euskara edo gaztelera erabiltzeko aukera egiterakoan. Errealitate honek ere izan dezake lotura datu hauekin. Gazteak mugitzen diren taberna giroan euskara erabiltzea errazago irtetea.

Eztabaida taldean:

“Gu beti gure giroko tabernetatik ibiltzen gara, eta egia da tabernari asko ezagunak izaten direla, edo ez badira ere...gure giroan euskeraz eskatzen dut,...erderaz eskatzea hain arraro egingo zitzaidan! ...zer, “un botellin de agua?”.” 20 urteko neska

“Giroaren arabera jokutzen dugula uste dut, igual ez da hainbeste, taberna bat izatea edo ez, taberna non dagon da igual eragiten diguna. Granviako taberna elegante batean ez dut uste euskeraz eskatuko nuekeenik, eta alde zaharreko tabernetan euskeraz eskatzen dut ia beti.” 33 emakumea.

“Tabernetan edo kalean...ezezagunak izan arren, nik normalean jende gazteari errezagotzen diot euskeraz, ikasketak eta erreztasunak euki dituzue....normalagoa da euskeraz jakitea nire adinekoak baino.” 65 urteko gizona.




Nabarmendu nahi dudak beste datuak generoaren aldagaia aztertzeraz eta baloratzera narama beste behin. Ezezagunen artean eremu formala izan da galdetegia bete duten bilbotarren artean euskararen erabilera altuena jaso duena. Baina oraingoan ere **emakumezkoak** dira nagusiki esparru honetan euskara erabiltzeko joera adierazi dutenak: **eremu formalean euskara beti edo gehienetan** erabiltzen dutela esan duten 31 pertsonetatik **23**.

Eztabaida taldean zer esana eman zuen administrazio publikoaren aurrean hartzen zuten jarrerak:

“ Administrazioko edozein lekutan, beti euskeraz egiten diet, eta zeozergatik ez dakitela esaten badidate kriston retaila botatzen diet,...prestatura daramat diskurtsua; askotan gero damutu ere egin izan naiz, ze klaro,...batzuk “bueno, pixka bat” erantzun eta gero igual ez zara aklaratzeko esaten duen erdiarekin ere! (barreak), baina.... Egokiena izango zen euskeraz eta ondo atenditzea, derrigortuta daude, baina badakigu zelan diren gauzak.” 67 urteko emakumea.

“...batzuk kartelak eukiten dituez ipinite, “hemen euskeraz” eta holakoak, baina nik be de entrada danari euskeraz. Jende aurrean lanean dabizenak ez badakirie euskeraz, pentsau administrazio barruen eta jefean artean eta, zer egongo dan...” 35 urteko gizona.



INKESTAKO ATAL BAT BALIOGABE

Galdetegiko hurrengo galde-sorta baliogabe utzi behar izan dut ez delako ondo ulertu, eta, ondorioz, emaitzak ezin direlako baliogarriak izan. Hau zen planteatzen zen galdera:

Euskaraz egiteko ahalegin handiagoa egin beharko zenuke ondoko kasuetan?

Eta jarraian egoera edo eremu ezberdinak zehazten ziren: familia, lagunartea, lana, ezezagunekin oro har, administrazio bulegoetan, kalean zerbait galdetzerakoan, saltoki eta komertzioetan, eta tabernetan.

Lagineko batzuek ulertu dute ea gehiago kostatzen zaien egoera horietan euskaraz egitea; eta beste batzuek ulertu dute ea euskara gehiago egin beharko luketen egoera horietan. Batzuek eta besteek emandako erantzunak ondorioz batera ezinak dira eta atal horrek guztiz galdu du bere zentzua.

AURREIRITZIAK BALDINTZATZEN DITUZTEN OSAGAI BATZUK

Informazio sakonagoa jaso nahian ondorengo galderak planteatu zitzaizkien inkestan herritarrei:

-Toki hauetako hizkuntza-paisaia (Kartel, idazkun...) euskaraz dagoenean zure jarrera berdina da?

Galdera honi %99k zentzu berean erantzun dio. Jarrera ezberdina izaten dela eta euskarazko hizkuntza paisaia ikustea eskertzen dutela eta horrek eragiten diela euren hizkuntza aukeran:

“Jarrera baikorragoa izaten dut. Hurbilago sentitzen dut tokia.”

“Asko pozten naiz. Gelditu, irakurri eta euskaraz hitz egitera bultzatzen nau.”


“Euskara egitera bultzatzen nau, eta interes handiagoarekin hurbiltzen naiz.”

“Erabat eragiten dit. Ikaragarri eskertzen dut gauzak euskaraz idatzita ikustea. Eroso sentiarazten dit. Neurri batean “atzeritar” sentitzen naiz Bilbon eta holakoak asko eskertzen dira.”

“Jarrera jatorragoa edukiko dut zerbait lehen aldiz euskaraz irakurtzean.”

“Poztu eta positiboki eragiten dit. Erdara hutsez daudenean euskaldunokiko mespretxua sumatzen dut.”

-Ezezagunaren adinak, itxurak, edo inguruko giroak (gazteen taberna bat, auzo dotore bat...) eragiten dizu?



Galdera honi ere gehien-gehienek antzera erantzun diote, hona hemen adibide batzuk:

“Gazteengana errazago hurbiltzen naiz euskaraz. Eta bai, aurreiritziak ditut, giro batzuetan hobeto sentitzen naiz eta euskaraz egiten dut, beste batzuetan ez.”

“Itxura edo giroaren arabera pentsatzen dut aurrekoak euskara jakingo duen edo ez, eta horren arabera erabiltzen dut nik hizkuntza bat ala bestea.”

“Gazteei edo eremu euskaldunetan euskaraz egiteko ausardia gehiago izaten dut.”

“Itxurak asko egiten du, askotan euskalduna dela sumatzen da. Agian trajedun gizon bati ez nioke euskaraz egingo...”

“Zalantzarik gabe. Itxuraren eta eremuaren arabera erabakitzen dut euskaraz edo gazteleraz zuzendu.”

“Bai. Euskaldun izatearekin lotzen ditudan ezaugarriak (aurreiritziak baino ez dira) dituen pertsonarekin euskaraz errazago egiten dut. Gazte bati errazago adineko bati baino.”

-Zuk gazteleraz hitz egin ondoren ezezagunak euskaraz erantzuten badu, zer sentitzen duzu?

Askok errepikatu dute erantzun hauetan lotsaren eta pozaren sentsazioa bizi izana horrelako egoera baten aurrean, baita errudun sentsazioa ere.

“Lotsa, neurekiko haserrea”

“Tristura, pena. Euskaraz egiteko aukera galdu dudalako”

“Hurrengoari euskaraz egiteko gogoa”

“Lotsa eta poza. Lotsa ausartu ez naizelako. Poza, ni baino zintzoagoak daudelako”

“Pena eta lotsa. Aurreiritziak izan ditudalako”

“Lotsa eta sorpresa. Konturatu naizelako jende gehiagok menperatzen duela euskara pentsatzen nuena baino”

“Amorrua. Askotan erosoenera jotzen dugu, eta gehiengoak gaztelera dakienez, gaztelerara jotzen dugu. Guk uste baino jende gehiagok daki euskara”

ONDORIOAK ETA BALORAZIOA

Egindako lanak eman dizkigun datuetatik ondorio xume batzuk baino ezin dira atera, oso presente izan behar delako gure lagina nahiko mugatua izan dela, eta 50 pertsonen hizkuntza ohiturak ezagutzeak ez duela balorazio kategorikorik egiteko aukerarik ematen. Aitzitik, ikerketa apal honek balio lezake Bilbo osoko euskaldunen inguruko ikerketa osatuagoei bidea zabaltzeko.

Landutako teoriak jasotako emaitzekin duten lotura aztertzerako orduan ondorengo aspektuak nabarmenduko nituzke:

Sánchez Carriónen esparru edo funtzioen teoria


Herritarren hizkuntza portaera aldakorrak aztertu ditugun neurrian, Sánchez Carriónek azpimarratzen zituen hizkuntza batek betetzen dituen eginkizunekin lotutako esparru ezberdinak ikusi ditugu jasotako emaitzetan. Esparru hauek ez dira fisikoak, buruzkoak dira; inkestetan edo eztabaida taldeetan argi geratu denez esparru batzuk bertako hizkuntzarekin betetzen dira (etxeko esparruan batez ere euskararen erabilera nagusitua ikusi dugu, baita lagunartean ere neurri txikiago batean); beste funtzio batzuk ordea kanpoko hizkuntzarekin betetzen dira (ezezagunekin harremanak nabarmenduko lirateke hemen); eta badira bi hizkuntzekin betetzen direnak ere (lan funtzioak, edo lagunartekoak ere hemen kokatuko genituzke aztertutako laginari dagokionean).

Erabileran eragiten duten faktoreak

Bilboko euskaldunen hizkuntzaren erabilera aztertu dugun honetan, erabilera horretan eragiten duten faktoreak antzeman dira lanaren emaitzetan; Iñaki Martínez de Lunaren sailkapenetik, emaitza hauetan norbanako maila eta maila mikroa azpimarratuko nituzke (maila makroak, duda gabe, beste bietan duen eragina ahaztu gabe)

-Norbanako dimentsioan nagusiki bi osagai aurki ditzakegu: gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Ukipen egoeran dauden hizkuntza batzuen hiztunek hizkuntza horietako baten alde egin dezaten, maila indibidualeko baldintza horiek nahikotasunez bete beharko dituzte; duda gabe inkestatu ditugun herritarrek baldintza hauek betetzen dituztela frogatu da emaitzetan: hizkuntza gaitasunari dagokionez, beharrezkoa den gutxieneko maila horretatik gora aurkitzen dira ikertu ditugun bilbotarrak; eta euskararen aldeko motibazioari dagokionez ere ez dago inongo dudarik (talde eztabaidan antzeman da batez ere herritar hauen euskararen aldeko jarrera).

Gizartearen dimentsio mikrosoziala da, ordea, ikerketa honen eremu garrantzitsuena, dimentsio honetan kokatzen eta gauzatzen baita euskararen erabilera. Hiztunek egoera ezberdinetan (familia, lagunarte, lan giro,...) dituzten harreman-sareetan zein



hizkuntza erabiltzen duten aztertu dugu lan honetan. Eta ikusi ahal izan dugunez norbanakoaren gaitasunak edo motibazioak ez du beti euskararen erabilera ziurtatzen, erabileran beste pertsona batzuk ere sartzen direlako jokoan, harreman sareek erabat baldintzatzen dute norbere hizkuntza hautua.


Solaskideen ageriko gaitasuna

Amonarrizek nabarmentzen duen bezala maila mikrosozialean beharrezkoa izango da beste baldintza hauek ere betetzea: harreman sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; talde batez ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere.

Ikerketa honen muina hemen kokatzen da; orain arteko norbanakoen baldintzak bete arren, ez dugunean solaskidearen hizkuntza gaitasunaren inguruko daturik gaztelania erabiltzeko joera argia agerian geratu baita. Ezezagunekin euskara ez erabiltzeko joera orokortua frogatu da emaitzetan; solaskide dugun horren ezaugarri linguistikoak ezagutu ezean, gurean dagoen idatzi gabeko gizarte arauak erdarara jotzea agintzen digulako. Amonarrizen ondorio hauek ere islatu dira gure ikerketako emaitzetan: “Halakoetan, soilik militantzia handiko euskaltzaleek, arau horri aurre eginez, hitz egingo dio euskaraz ezezagunari”. Inkestetako emaitzek aurreikusten zuten batzuen jarrera militante hori eztabaida taldean jaso da esplizituki, ezezagunei ere beti euskaraz egiten dien emakume baten ahotan. Beste zirrikitu bat ere nabarmentzen du Amonarrizek, hizkuntza-paisaiari dagokiona. Denda edo establezimendu ezberdinetako errotilu, kartel edo oharak euskaraz egoteak euren hizkuntza haututan eragin zuzena duela erantzun digute inkestatueta gehienek. Solaskidearen gaitasunaren inguruan informazioa ematen digu balizko euskarazko hizkuntza paisaia horrek, eta ezezaguna izan arren euskara erabiltzera bultzatu ohi gaitu.

Aurreiritziak

Solaskidearen hizkuntza gaitasunaren inguruan “pistak” edo informazioa bilatzerakoan, aurreiritziez hitz egin beharra dugu. Ikerketa honetan askok, ia denek, aitortu baitute aurreiritzien eragina ezezagunekin hizkuntza bat edo beste erabiltzerako orduan. Aurreiritziez Belen Uranga eta Lionel Joly-ren esanak laburbiltzen genituen marko teorikoan: “hizkuntza-aurreiritziak hizkuntzari buruzko uste orokortuak dira, beste modu batean esanda, ez-adituen hizkuntzalaritza. Uste orokortu horien eragina garrantzi handikoa da ondorio sozialak izaten dituztelako....eta gainera, euskararen testuinguruan garrantzitsuagoa dena, aurreiritziok elebitasun edo eleaniztasun egoera sustatzeko sano kaltegarriak izan daitezke, hizkuntza txikiari eustea edo ikasteko ahalegina egitea oztopatzen dutelako”



BETE DIRA HIPOTESIAK?

Eskuartean ditugun datuekin, hasieran planteatutako hipotesiak betetzen diren ala ez aztertu eta baloratuko dut atal honetan.

Hau zen iker-saioaren hasieran planteatu nuen hipotesia:

“Askok egunerokoa euskaraz burutzen dutela hurbilekoekin (etxekoekin, lagunartean, lanean edo auzoko ezagunekin,...) Baina ezezagunekin lehen hitza erdaraz egiteko joera dutela gehienek, euskaraz dakien edo ez jakin gabe. Joera horretan aurreiritziek asko eragiten digutela. Eta, batzuetan, erdaraz egin ostean, ezezagunak euskara bazekiela konturatzen garela eta horrek norbere buruarekin lotsa eta amorrua sentiarazten digula. Hizkuntza ohitura hauetan adina, sexua eta okupazioa eragina izan dezaketen aldagaiak direlakoan nago.”

Orokorrean hipotesia bete egin dela esango nuke, ezbairik gabe, baina salbuespen eta ñabardura batzuekin:

Gehiengo zabal batek ezezagunekin lehen hitza erdaraz egiteko ohitura aitortu du, salbuespen argi batekin: administrazio publikoarekin harremanetan asko izan dira euskaraz egiteko joera erakutsi dutenak. Aspektu hau ez zuen jasotzen nire hipotesiak eta beharrezkoa da azpimarratzea. Honek adierazten du, badagoela kontzientzia bat erakunde publikoetan langileek euskaraz jakiteko betebeharraren inguruan.

Ezezagunari erdaraz egin ondoren berak ere euskaraz bazekiela konturatzekoan sentitzen dugunaren inguruan, arreta deitu dit (nahikotxo gainera) askok “poza” adierazi izana. Tankerako erreakzio positibo bat ez zen nire hipotesien artean sartzen; norbere buruaren aurkako sentimendu ezkorrak baino ez nituen espero, eta harrigarria egin zait askok eta askok beste muturreko sentsazioa bizitzea (askok sentsazio kontrajarriak aipatzen zituzten: lotsa eta poza; amorrua eta poza).

Hizkuntza-ohitura hauetan adinak eta generoak duten eraginaren inguruan, adinaren eta generoaren aldetik emaitza bereizgarri batzuk nabarmendu izan ditut ondorioetan; hala nola emakumeak euskara gizonezkoak baino egoera gehiagotan erabiltzeko joera, edo, gazteen eta tabernetako hizkuntzaren arteko harremana, baita gaztetxo euskaldunak taldean egoterakoan erdarara jotzeko erraztasuna ere. Eragina beraz, egon badagoela esango nuke, baina ezin direla datu hauen gainean ondorio orokorrak atera.

Hauexek bada, iker-saio honetatik atera ahal izan ditudan konklusioak. Zer pentsatu eman didan lana izan da, kanpotik begirale bezala norberaren hizkuntza ohitura antzekoak dituztenen jarrera eta joerak aztertzeko ariketa izan baita hau niretzat. Bilboko errealitate soziolinguistiko arrotzean murgilduta bizi garen euskaldunon


ohiturak. Zer hobetu askorekin, baina baita baloratzeko moduko jarrerekin osatzen den kontraste interesgarria jaso dudala iritzita amaitzen dudana.

BIBLIOGRAFIA

- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María. 1991. Un futuro para nuestro pasado. Donostia: Sánchez Carrión "Txepetx"
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 2004. Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak in Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (Ed) Egokitasuna hizkuntzaren erabileran 11-37. Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, 2004.
- JOLY, L. eta URANGA, B. Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In ZARRAGA eta beste. 2010. Soziolinguistika Eskuliburua. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- JOLY, L. Soziolinguistikaren funtsa teorikoak. 2017-18 HIZNET
- ERIZE, X. eta ZALBIDE, M. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. 2017-18 HIZNET
- MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki. 6.1 Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak. 2017-18 HIZNET
- FISHMAN, JOSHUA, A. Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages. Clevedon. 1991
- COOPER Robert, L. La planificación lingüística y el cambio social. Madrid, Cambridge University Press, 1997

Web orriak

- BAT Soziolinguistika aldizkaria: www.soziolinguistika.org
- Soziolinguistika Klusterra: www.soziolinguistika.org
- EUSTAT: www.eustat.es
- Bilboko Udala: www.bilbao.net



ERANSKINA

EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-OHITURAK BILBONINKESTA

Posta bidezko galde-sorta

Bilboko euskararen egoeran sakondu asmoz, bertako euskaldunok dauzkagun hizkuntza-ohiturak aztertzea da lan honen helburua; noiz eta norekin egiten dugun euskaraz jakitea, alegia. Horretarako zure laguntza behar dugu, eta ahalik eta era zintzoenean galdera hauek erantzutea eskatzen dizugu. Zure iritzia erabat anonimoak izango dira. Besterik gabe, eskerririk asko parte-hartzeagatik!

Datu pertsonalak:

Izena:

Adina:

Sexua:

Okupazioa:


Euskara gaitasuna

-Zure euskara gaitasuna nolakoa dela uste duzu?

Oso ona	Ona	Nahiko ona	Ez oso ona	Txarra

-Adierazi zure adostasun desadostasun maila ondorengo esaldien aurrean

	Guztiz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez
Orokorrean euskaraz pentsatzen dut				
Euskaraz hobeto adierazten naiz gaztelaniaz baino				
Euskaraz egin ditut ikasketak				
Euskara da nire lehen-hizkuntza				

**Euskararen erabilera**

Zein hizkuntza erabiltzen duzu?

	Euskara beti	Gehienetan euskara	Euskara eta gaztelera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Familiakoekin					
Lagunartean					
Lanean					
Ezezagunekin, oro har					

Familiako hizkuntza

	Guztiz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez
Etxean denon artean euskaraz hitz egiten dugu				
Familiako batzuekin euskara erabiltzen dut, eta beste batzuekin ez				
Familiakoekin gaztelania erabiltzen dut normalean				
Umeak tartean daudenean beti hitz egiten da euskaraz, bestela beti ez				

Lagunarteko hizkuntza

	Guztiz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez
Denak euskaldunak garenean, kalean orokorrean euskara erabiltzen dugu				
Denak euskaldunak garenean, askotan euskara eta gaztelania tartekatzen ditugu				
Sare sozialetako mezuak euskaraz izaten dira gehienetan				

Taldean norbaitek euskaraz ez badaki gaztelaniara jotzen dugu				
---	--	--	--	--

Laneko hizkuntza

	Gutziz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez
Euskara da lanean erabiltzen duten hizkuntza				
Gaztelania da lanean erabiltzen duten hizkuntza				
Lanean gaztelania hizkuntza nagusia izan arren, euskaraz dakitenekin euskara erabiltzen dut				
Lanean euskara hizkuntza nagusia izan arren, gaztelaniara jotzeko ohitura dut				

Ezezagunekin

Egoera hauetan zein hizkuntza erabiltzen duzu ezagutzen ez duzun jendearekin?

	Euskara beti	Gehienetan euskara	Euskara eta gaztelera antzera	Gehienetan gaztelera	Gaztelera beti
Eremu formalean: Administrazio, bulego...					
Kalean zerbait galdetzerakoan					
Saltoki eta komertzioetan					
Tabernetan					

Euskaraz egiteko ahalegin handiagoa egin beharko zenuke ondoko kasuetan?

	Gutziz ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez
Familiakoekin				
Lagunartean				
Lanean				

Ezezagunekin, oro har				
Administrazio, bulego...				
Kalean zerbait galdetzerakoan				
Saltoki eta komertzioetan				
Tabernetan				

Erantzun ondorengo galdera hauei

-Toki hauetako hizkuntza-paisaia (Kartel, idazkun...) euskaraz dagoenean zure jarrera berdina da?

-Ezezagunaren adinak, itxurak, edo inguruko giroak (gazteen taberna bat, auzo dotore bat...) eragiten dizu?

-Zuk gazteleraz hitz egin ondoren ezezagunak euskaraz erantzuten badu, zer sentitzen duzu?